

# LIMOSNACHO BAT



(ON ANTONIO ARZÁC JAUNARI DONKITUA)

Mutill koskor bat ichu-aurreko  
 zubela aldamenian,  
 gizon buru-soll bizar zuri bat  
 bi makuluren gañian  
 kale-eskiñan ikusi nuben  
 ñora eziñ joanian;  
 ta bera nor zan jakiñ nayian  
 inguratu nintzania....  
 limosnacho bat eskatu ziran  
 Jainkuaren izenian.

Zerbait emanaz galdetu niyon  
 alzan modu onenian,  
 jayotzatikan alzeukan ala  
 gaitzak artuba mendian;  
 eranzun ziran:—ez semia, ez,  
 nik sasoya nubenian  
 ez nuben uste irichitzerik  
 onetara azkenian....  
 Gaur limosna bat eskatutzen det  
 Jainkuaren izenian.—

Eta segitu zuben esanaz:  
 —lengo gerrate denian,  
 ni aurren samar ibiltzen nintzan  
 beti edo geyenian;  
 nekatu gabe, aisa igoaz  
 aldapik luzienian:  
 etzan burura asko etortzen  
 gu ala gebiltzania....

gero limosna eskatutzerik  
Jainkuaren izenian.

Odolak bero eta buruba  
arrua daguenian  
edozeiñ moduz sartutzen da bat  
alako ichumenian;  
atsekabe ta negar samiñak  
badatoz ondorenian;  
nolaerebait batek biziya  
utzitzen ezdubengan....  
limosnacho bat eskatu biar  
Jainkuaren izenian.

Iñoiz pentsatzen nere artian  
ni jarritzen naizenian,  
gaur ere asko dirala juango  
lirakenak zuzenian,  
ez luke iñork sinistatuko  
zer pena ematen diran.  
Ai! orla nintzan ni ere sano  
ta gazte nenguenian....  
Gaur limosna bat eskatutzen det  
Jainkuaren izenian.

Ai! chorakeri asko egiten  
da zentzurik ez danian,  
sinista zazu ur au pasia  
daukanaren esanian;  
obiago da sasoi dan arte  
sayatutzia lanian  
negar egiñaz ibilli gabe  
gero denbora joanian....  
limosnacho bat bildu eziñik  
Jainkuaren izenian.—

PEDRO M.<sup>a</sup> OTAÑO.

